

Hemeretzigarren mendeko plaza latz eta malkartsuak ikusteko gutxi zeukan Lakuntzan gaur egungo kale txukun eta oinutsean ibiltzeko zoru leun apainarekin. Urkabera da, harrizko bere gorputz sendoa dela-eta, Dendaberriko seme zaharrena 1883ko san Blas egunean mundura etortzen ezagutu zuen testigu bakarra. José Bizente, haurraren aita, lakuntzar peto-petoea zen, karlisten bigarren gerrako soldado borrokan atera zitzaion bizarra beste gazte askori bezala. Anizeta, bere ama, abizenez Alesna aita bezala. Etxarren Arakilgoa zen. Zazpi seme-alaba izan zituzten orduko familia handien arab'era. Eguneko santuaren izena zmtzo-zmtzo errespetatuz, jaioberrian Blas jarri zioten biharamunean.

Langileen zarata entzu-tetzen Alegriatarren etxe aurrean. Herriko iturria eraikitzea gogora-tu zitzaion Juan Pedro Lanz alkateari, zon txa-rraz beretzat. eta ia osasu-na galdu zuen obra hon burugabekeria zela zioten herritarren erasoengatik. Ur stiiak buruan hartuta ikusten zituen eguñero urketa errekarra joaten emakumeak eta hain beharrezkoa zen lanbidea erraztu nahi zien gizonak. Hurrengo urtean, 1884an alegia, a'maitu. ziren iturriko lanak eta, oso zaila izan zenez obra aurrera ateratzea, santa Rita jzenarekin bataiatu zuten harrizko letretan iturria, ezinezkoen zaindaria delakóan. Deabrua ez zegoen lo, halere, eta inauguratzeko bezperan dinamita jarri zioten inguruan kontra-rioe txikizioa egiteko asmoz. Hala beharrez, eraunsi batek

Blas Alegría

(1883-1947)



metxa eta bolbora busti eta ez zuen ezandarik eain lehegai-luak. Jainkoaren kastigvitza hartu zuen hori jendeak eta sonatua izan zen besteen porrota.

Setatsuak ziren alkatearen etsaiak eta. gero ere, ez zuten gau eta egun gizona bakean uzten. Hori dela-eta. etsirik. Juan Pedro Lanz lakuntzarrak, bere herria utzita, Uhartera Joan behar izan zuen bizitzera.

Blas Alegría gaztea Iruñeko SeminaroraJoan zen urte bateko latin ikastaroa Unanun egin on-


doren. Bazen etxe aurrean kalean behera jaisten zen erreka handi bat eurien urak hartzen zituena eta egurrezko zubia egoten zen alde batetik bestera joateko. Oporretan etorri zen batean zubian erori apaizgaia eta maingu edo herrén gelditu zen geroztik. Hala ezagutu nuen nik Arruazun meza ematera joaten zenean. Apaiz serio eta begirada gogorreko gizo-na iruditzen zitzaigun haurroi, baina denok nahi izaten genuen hari meza laguntzea paga gehixago ematen baitzigun. Gorputz handikoa zen eta euskaltzale sutsua. Ongi idazten zuen eta orduko aldizkari askotan agertzen dirá bere lanak, hala ñola Cure Ama, Dama eta Ana Mari antzerki sarituak, Oliteko Gaztelua, Lilaya, Arimen gaba eta Malencho artikulak. Amurgingo koban bizi zen Aralarko damaz mintzo da Lakuntzako ,s Alegría Pertza izeneko saioan. 20an) Lakuntzako oren berez-

ko umore zorrotza askotan nabari da bere izkribuetan eta era horretako gaia da, adibidez, Belarri bakarreko Cerri broma zallaren bertso berriak. Garai hartako euskaltzale eta idazle ospetsuen laguna zen. Aipa daitezke, Serafín Olave, Manuel Irujo, Migel Intxaurren eta Bitoriano Huizi, biok euskal gramatikak egin zituztenak, José María Iribarren Tuterakoak maiz aipatzen du eta. zer esanik ez. Juan Goikoetxea Arbizuko apaizaren laarun mina zen, besteak beste. Euskeraren Adiskideak taldeko bazkidea gerra aurretik, Euskaltzamiak omenaldia eskaini zion Lakuntzan bere jaiotzako mendeurrenean.

Espainiako gerra denboran irabazleen aldetik gaizki ikusia izan zen don Blas, euskaltzale gehienak bezala, eta behm baino gehiagotan arakatu zioten etxea ustezko konru txarren bi-la. Gorriak eta beltzak ikusi zituen eta, beldurrez, sura Joan ziren bere izkribu eta euskarazko libuniak edo itsasora, zakuan sartuta. Getariako lehengusuen etxean zeudenak bezaJa. Ez da harrizkoa egoera horretan osasun ajeak nabantzea. Bere herrian hil zen 1947ko urriaren 12an, Püareko Ama Birjmarene eguna seinale, 64 une zituela.

Gaztetan don Blasetón bizitako Alfontso Goikoa ilobarekin topo egin izan dut behm edo beste Argentinan eta neu oroitzen ez nmtzen haurtzaroko pasarte ttipiak gogoratzen zizkidan berak. Barrez hartu genuen biok, esate baterako, bere lagunekin niri bidera atera eta harrika eman zidateneko pasadizoa. Erreka batean sartuta zaindu ornen nuen neure burua eta ilundu arte kuzkurturik egon erasoen beldurrez.

Haur kontuak gora-behera, ongi konpondu izan dirá elkarrekin Arruazu eta Lakuntza.



Ezkerrean: Lakuntzako abesbatza 1983an egindako omenaldian. Eskubian: Blas Arakil ibaian bere lagun errotiarekin. Deia egunkaririk (1983ko otsailaren



JOSÉ MARI SATRUSTEGI
Euskaltzaina